



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

## ZIN BIDETIK ZEHARREKO MARATOIA ONGINTZAZKO HELBURUEKIN

- **Javi Conde, Jon Salvador eta Begoña Beristain Gernikako Batzar Etxetik atera dira 42,19 kilometro egiteko bide historiko honetatik zehar.**

*(Gernikan, 2019ko abenduaren 30ean).*- Bizkaiko Batzar Nagusietako Ana Otadui Lehendakariak 13:50etan entregatu ditu Gernikako Arbola maratoi solidarioaren sariak, Gernikako Batzarretxean, haritz historikoaren aurrean. Javi Condek, Jon Salvadorrek eta Begoña Beristainek proba hau ongintzazko helburuekin egin dute, Bizkaiko Jaunek, Foruak berresteko, Bizkaira etortzeko erabiltzen zuten zin bide historikotik. Handik pasa zen azkena Fernando V.a izan zen, korrika, Mañariatik, bere helmugara berandu zihoalako.

42,19 kilometroak egin ondoren, 9:00etatik, helmugara iritsi dira Javi Conde, Begoña Beristain eta Jon Salvador. Begoña Beristain korrikalari eta kazetariak, estreinaldiko aldiz, maratoi honetan parte hartu du, lasterketa solidario honen alde egiteko eta emakumearen kirol esparruko zereginak nabarmentzeko.

“Batzar Nagusien Lehendakari gisa, eta oro har, bizkaitar guztiontzat, ohore handia da, aurten, zuen erronka solidarioan Gernikako Arbola sartu izana, euskal askatasunen sinboloa eta gure historiaren ikonoa baita”, nabarmendu du Otadui, Foru Ganberako ordezkari gorena.

Javi Conde Maratoi Solidarioen Elkarteak, oraingo honetan ere, bere erronka solidarioenetariko bati aurre egin dio: maratoi bat egitea (42.195 metro) zirkuitu labur eta Bizkaiko leku ospetsu batean. 170 metroko zirkuitu bat izan da, alegia; guztira 85 metroko 514 zuzen, dagozkien joan-etorriko birekin.

Proba hauek homologatuta eta Bizkaiko Federazioko epaileek kontrolatuta daude, eta dirua biltzea eta ekintza solidarioetan erabiltzea dute helburu. Aurten, bildutako dirua honako elkarteei emango zaie: Aunar Taper Solidario Elkarte, Stop San Filipo Elkarte, Kirol Egokituaren Euskal Federazioa, Saharako Errefuxiatuen Kanpamendua, Basauriko Atletismo Egokituaren Kluba eta Aingeru-Etxebarri Proiektu Solidarioa, Jesusen Mirabeak, besteak beste.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## MARATÓN POR LA RUTA JURADERA CON FINES BENÉFICOS

- **Javi Conde, Jon Salvador y Begoña Beristain han salido desde la Casa de Juntas de Gernika para correr 42,19 kilómetros por esta histórica vía.**

*(Gernika, a 30 de diciembre de 2019).*- Ana Otadui, Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, ha entregado a las 13:50 horas los premios del maratón solidario Gernikako Arbola en la Casa de Juntas de Gernika, delante del histórico roble. Esta prueba, que han disputado con fines solidarios Javi Conde, Jon Salvador y Begoña Beristain, ha discurrido por la histórica ruta juradera que utilizaban los Señores de Bizkaia para venir a refrendar los Fueros. El último en recorrerla fue Fernando V que lo hizo corriendo porque llegaba con retraso a su destino desde Mañaria.

Tras correr los 42,19 kilómetros desde las 9:00 horas, han llegado a meta Javi Conde, Begoña Beristain y Jon Salvador. La corredora y periodista Begoña Beristain se ha sumado por primera vez a este maratón para apoyar esta carrera benéfica y visibilizar el papel de la mujer en el deporte.

“Es un gran honor para mí como Presidenta de las Juntas Generales y en general para los y las vizcaínas que hayáis incluido este año en vuestro reto solidario al Árbol de Gernika, símbolo de las libertades vascas e icono de nuestra historia”, ha destacado Otadui, máxima representante de la Cámara Foral.

La Asociación Maratones Solidarios Javi Conde se ha enfrentado una vez más a uno de sus retos solidarios: correr la distancia de un maratón (42.195 metros) en un circuito corto y en un lugar emblemático de Bizkaia. Ha sido un circuito de 170 metros, lo que se ha traducido en un total de 514 rectas de 85 metros con sus correspondientes giros de ida y vuelta.

Estas pruebas, que están homologadas y controladas por jueces de la Federación Vizcaína, tienen como objetivo recaudar fondos y destinarlos a acciones solidarias. Este año se entregará lo recaudado a la Asociación Aunar Taper Solidario, la Asociación Stop San Filipo, la Federación Vasca Deporte Adaptado, el Campamento Refugiados Sáhara, Club Atletismo Adaptado de Basauri y Proyecto Solidario Aingeru-Etxebarri, Siervas de Jesús, entre otros.